

a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

> Aginduak



- Antonimoen bikote-jolasa

Helburuak

- Hainbat agindu euskaraz izendatzen ikastea.
- Agindu bakoitzaren esanahia ulertzea eta noiz erabili behar den jakitea.
- Aginduak euskaraz erabiltzen hastea.

Prozedura

- Lehenik eta behin, umeei azaldu aginduak erabiltzen hasiko direla.
- Horretarako, argazki-albumeko argazkiak erakutsi eta banan-banan denak izendatu.
- Antonimoen bikote-jolasean, irudiekin jolas egingo dugu. Kontrako esanahi duten irudiak bilatu beharko dituzte.
- Jolas honen helburua kontrakoak aurkitzea da; irudi-irudia elkarketa egitea, alegia.
- Pausuak:
 - Fitxa guztiak mahai gainean jarri ahuspez.
 - Ume guztiak fitxen inguruan jarri.
 - Ume batek fitxa bat jasoko du eta izendatu (irudian dagoena zer den esan); beste fitxa bat jaso eta izendatu. Kontrako irudiak badira, gorde egingo ditu, bikotea lortu du-eta. Kasu honetan, berriro bere txanda izango da eta beste bi irudi jasoko ditu.
 - Bi irudiak ezberdinak badira, berriro utziko ditu mahai gainean lehen zeuden tokian, eta, hurrengo umearen txanda izango da.
 - Bikote gehien lortzen dituen umea izango da irabazlea.

Hitz-zerrenda

- | | |
|--------------------|----------------------|
| – Bota / hartu | – Galdetu / erantzun |
| – Altxatu / eseri | – Idatzi / irakurri |
| – Eskatu / eman | – Ixildu / Hitz egin |
| – Ekarri / eraman | – Irekin / itxi |
| – Erantzi / jantzi | – Jaitsi / igo |
| – Ikusi / entzun | – Itzali / piztu |
| – Etorri / joan | – Irten / sartu |